

# getxoBerri

**Getxo**  
bizi ezazu

f t #GetxBiziEzazu

Doako alea

1.591 zk.  
www.getxo.eus

Maiatzak 14  
>> Maiatzak 24

2020

**Sektore hori itxita egon den bitartean ez da tasarik aplikatu eta ez dira izapidetuko, eta terrazak ezartzen direnean, urteko azken hiruhilekora arte ez dira kobratuko**

## Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduen jarduera errazteko neurriak, kaleko terrazak irekitzeko

Aste honetan, ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduetako terrazak irekitzeko dagoen aukeraren aurrean, Espainiako Gobernuak normaltasun berrirako deseskaladaren 1. faserako aurreikusitako malgutze-neurrien esparruan, Udalak zenbait neurri hartu ditu ostalaritza- eta jatetxe-sektorearen jarduera eta sustapen ekonomikoak sustatzeko aldera.

Horrela, aire zabaleko terrazak (bi horma edo gutxiagokoak) publikoarentzat berriz irekitzeko baimena ematen zaie gaur egun baimena

duten, zerga-betebeharrak egunean dituzten eta administrazio-zehape-nik jaso ez duten establezimenduei, baimendutako mahaien %50rekin (10 pertsona gehienez mahai edo mahai multzo bakoitzeko). Terrazaren okupazioa baimendutako mahaien %50era mugatzen bada ere, baimendutako mahai kopurua bakoitia bada, ateratzen den kopurua gorantz biribildu ahal izango da. Mahaiak erditik gora gehitzeko aukera ere eskaintzen da, baldin eta hasieran baimendutako azaleraren barruan mahaien ar-

tean gutxienez bi metroko distantzia fisikoa errespetatzen bada, eta, gainera, terrazarako azalera handitu nahi duten establezimenduek Udalari dagokion baimena eskatu beharko diote, eta horrek egiaztatuko du bide publikoaren zati horretan oinezkoentzako espazioa proportzionalki handitzea bideragarria den.

Baimen guztiak udal-ordenantza bete beharko dute mugei, ordutegiei eta legez ezarritako gainerako betekizunei dagokienez, eta baita Udal Jabetza Publikoa okupatzeagatik Tasa arautzen duen Zerga Ordenantzan xedatutakoa eta Alarma Estatuari berari dagozkionak ere bete beharko dituzte.

Gogoratu behar da sektore hori itxita egon den bitartean ez dela tasarik aplikatu eta ez direla izapidetuko, eta terrazak ezartzen direnean urteko azken hiruhilekora arte ez direla kobratuko.

Bestalde, Udalak sektoreko profesionaleri eta herritarrei gogorarazten die terrazak behar bezala erabil ditzatela, urruntze sozialaren araudia betez, maskarekin eta gehienez 10 pertsonako taldean.



### Komun publikoak zabalik daude erabiltzeko

Udalak herriko komun publiko guztiak ireki ditu berriro aste honetan herritarrek erabil ditzaten, udalerriko pasealekuetatik dabilzanean eta kirol-jarduerak egiten dituztenean. Horrela, Ereaga hondartzako pasealekuan, San Nikolas plazan eta Bizkaia Zubiaren plazan dauden komun publikoak irekita daude 08:00etatik 21:00etara. Aixerroten, La Bola hondartzan eta Areetako kaiko pasealekuan dauden komunak, bestalde, 07:00etatik 23:00etara daude zabalik, aurrekoak bezala, asteko egun guztietan.

Udalak, instalazio publiko horiek garbituko ditu, osasun-krisia dela-eta eta alarma egoerarengatik agintari eskudunen aldetik ezarritako higie- eta osasun-neurrien arabera.



## Adineko gehienek beren eguneroko premiak beteta dituzte

Udalerriko 65 urtetik gorako pertsona gehienek familiaren, lagunaren, auzotarren edo kontratutako pertsonen bidez beteta dituzte beraien eguneroko beharrak. Horrela agertzen da udalak konfinamendu-garaian biztanleria-sektore horri telefono bidez arreta emateko abian jarritako zerbitzuaren balantzean. Ekimen horren helburua izan da, behar izatekotan, haien egoera ezagutzea eta laguntza ematea. Hori Gizarte Zerbitzuek bizi dugun egoeran behar handiena duten sektoreei arreta emateko ezarritako hainbat ekintzari gehitzen zaio, Amaia Agirre alkateak eta Carmen Diazek, Gizarte Kohesioko zinegotziak, adierazi dutenez.

### Telefono-deien balantzea

Udalak 6.473 etxebizitzako lagin batekin lan egin du, apirilaren 15etik maiatzaren 5era. Guztira, bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako 2.396 pertsonak erantzun dute, eta baita 65 urtetik gorako beste pertsona batzuekin bizi diren 5.451 adineko (2.898 etxebizitzatan) ere, hau da, guztira 5.225 etxebizitzarekin eta 7.847 bizilagunekin jarri da harremanetan.

Horietatik % 49,3 Algorta-Neguri barrutian bizi dira, %34,1 Romo-Areetan eta % 16,5 Andra Marin. Zerbitzu guztien berri eman diegu, hala nola, Guztion Artean sarea edo PsicoBiziren arreta. Soilik adinekoekin bizi diren adinekoen % 0,14 eta bakarrik bizi diren adinekoen % 0,41 jo dira babesik gabeko bakardade-kasutzat. Deien ondoren, 21 kontsulta bideratu dira PsicoBizi zerbitzura eta bost al-

diz eskatu da balorazio tekniko. Orokorrean adinekoek eskertu egin dituzte udalaren interesa eta deien bidez erakutsitako hurbiltasuna eta maitasuna; eta egiaztatu da gehienek eguneroko premiak beren familia, lagunak, bizilagunak edo kontratatutako pertsonen bidez konpontzen dituztela.

### Gizarte ekintzak



Udalak alarma-egoeraren hasieratik lan egin du pertsona ahulenen egoera arintzeko jarduerak ezartzeko. "Oinarrizko beharrak asetzean jarri dugu arreta, eta deiak egitearekin batera, Andra Mariko kiroldegian etxerik gabeko pertsonentzako behin-behineko aterpetxe bat egokitu dugu, 25 plaza gehitu dituenak Karitate kaleko 10.eko aterpeteko 19ei; udal-laguntzen lerro berri bat, 900 eurora artekoa, familien oinarrizko beharrak estaltzeko, besteak beste, haurren haustura digitala murrizteko; bai GLLak, bai Aldizkakoak ez diren Udal Laguntzak aurrekontu-mugarik gabe beteko dira; Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta indartu dira; handitu ditugu hirugarren sektoreko erakundeentzako diru-laguntzak, eta haiekin harreman koordinatua dugu elkarrizketa sozialeko mahaiaren bidez; Oinarrizko gizarte-zerbitzuek arreta mantendu dute telefonoaren bidez eta ikastetxeei Adikzioen prebentziorako eta hezkuntza emozionalerako materialak eman dizkiegu, ikastetxe batzuetatik familietara ekipo informatikoak hurbiltzeaz gain", gogorazi du Gizarte Kohesioko zinegotziak.



**Gaztetxeko gazteek udal Euskaltegi zaharrera itzuli nahi dute, duela hilabete batzuk okupatu zuten eta alerta egoera deklaratu ondoren hustu zuten**

## Udalak ondare publikoa zainduko du eta ez du onartzen udal eraikin bat okupatzea baimenik gabe

Udalak, aste honetan Romoko Gaztetxeko gazteen ordezkari batekin bilduta, ez du onartzen Itzubaltzeta IIIk egindako proposamena, hau da, baimenik gabe, bere jardura udal-eraikin batean alde bakarrez garatzen jarraitzea, ondasun publikoen eta ondare-ondasunen izaera bera arautzearen aurkakoa delako. Itzubaltzeta IIIk eraikina bere baliabideekin desinfektatzeko egindako planteamenduaren aurrean, Udalak uste du udala bera arduratu behar dela bere jabariko ondasunak benetan desinfektatzeaz. Bileran amaitu ondoren, 30 pertsona inguruko talde bat, 80 pertsonara iritsi arte beste batzuk gehituz joan zirelarik, eraikinaren aurrean bildu zen eta udaletxeko langileei sartzeari galarazi zien, eraikina, gaur egungo gainerako



udal eraikinekin bezala, inork erabili ez dezan eta itxita jarrai dezan neurriak hartzeko sartzera zihoazenean; gainera, gazteok ez zuten betetzen Gobernu zentralaren alarma-egoerari buruzko dekretuan ezarritako zirkulazio- eta mugikortasun-mugak. Eta ez dagoenez ez estatuko ez autonomia-erkidegoko araurik lekualdatzea

ahalbidetzeko, Ertzaintzari abisua eman zitzaion. Eraikinaren perimetrotako kaleak hesitu ondoren, taldea sakabanatu egin zen pixkanaka, eta ez zen poliziaren esku-hartzerik behar izan, eta udal langileek lokala itxi ahal izan zuten.

Udalak berriro errepikatu du elkarrizketarako borondatea, *"baina arau oinarritzkoenak errespetatuz, eta, gaur egun, alarma-egoerak eragindako mugikortasun-muga betetzea ezinbestekoa da osasun publikoa zaintzeko, eta ondare publikoa zainduz"*.

450 pertsona inguruk manifestazioa egin zuten asteartean Romon, eraikina ixtearen eta etorkizunean eraistearen aurka; bertan, gazteentzako 40 zuzkudura-etxebizitza eraikiko dira, alokairu sozialeko erregimenean.

## Zurumurruen prestakuntza online

Zurumurrurik Ez Estrategiak online bidezko prestakuntza jardura batzuk antolatu ditu. Lehenengoz, sei astez, Zurumurruen kontrako hainbat erreferenteren lankidetzarekin, prestakuntza-pilula bat eskainiko du, bizikidetzarekin lotutako gaiak buruz, gure etxetatik kultur artekotasanari dagokionez. Pieza horiek ostegunetan argitaratuko dira, 18:00etan, udalaren webgunean eta facebook eta Instagram Antirumores sareetan.

Bestalde, bi mintegi egingo dira online, hausnarketen aurkako Getxoko Estrategiaren ibilbideaz hausnartuko da eta Zurumurrurik Ez! Getxo Gazteak taldeak kultur aniztasunaren aldeko martxa birtuala antolatuko du maiatzaren 21ean.


## Europaren Eguren ospakizuna

Europaren Eguna maiatzaren 9an Europar Batasunean egiten den ospakizuna da, Shuman Aderazpena gogoratzeko, non Robert Schuman Frantziako Atzerri ministroak Europako estatuen integrazioarako lehen urratsa eman zuen. Urtemuga honetan, Eurgetxo Europako Herritarren Elkarteak gogorarazi duenez, *"mundu osoan eta historian paregabea eta bakarra den herrialdeen arteko lankidetzaren-eredu baten aurrean gaude. Askatasunaren, tolerantziaren, norbanakoaren eskubideen eta zuzenbide-estatuaren printzipioei eta balioei buruz, EBko estatu kideek askatasunez erabaki dute subiranotasunaren zati bat erakunde komun batzuei ematea"*. Getxoko elkartearen ustez, *"datozen hodei ikaragarriak gorabehera, ez litzateke bidezkoa izango EBk egonkortasunari, aurrerapenari eta herritarren eskubideei dagokienez eman dizkigun eta oraindik ematen dizkigun onura handiak ez baloratzea"*.

## Udalak aho batez hartu du erabakia Udalbatzei, Batzarrei eta Batzordeei berrekiteko

Maiatzean, hilabete honetan bertan, berrekiteko zaie Udaleko Erakunde Autonomoetako Artezkaritza Kontseiluei, Informazio-batzordeei eta Osoko Bilkurei. Izan ere, hala erabaki dute, aho batez erabaki ere, Udalan ordezkariak duten bost talde politikoek: EAJ/PNVk, PPK, EH-BILDUK, PSE-EEk eta Elkarrekin-Podemosk. Akordio horren testuan jasotakoaren arabera, *"pairatzen ari garen mundu mailako pandemiak eguneroko gertakari normalak baldintzatu ditu alderdi guztietan. Pandemia horrek transmititzeko*

*gaitasun handia duenez, prebentzio-neurriak zorrotz behar izan ditugu, batez ere gizartea urruntzeko neurriak, etxeko konfinamendua barne. Horren ondorioz, urgentziaz aldatu ziren martxo osoko bilkuraren data eta antolaketa, eta ez zen apirileko osoko bilkura egin. Hala ere, kutsadura-datuek egoera egonkortzeko joera erakusten dutenez, beharrezkoa da administrazio-jardura erabat berreskuratzeko urratsak ematea. Aldi berean, esparru politikoa eta Udal Gobernu Organo desberdinak ere baldintza berrietara egokitu behar dira"*.



## Udalak KEBren jolasaren bertsio bat eskaintzen du ikasgeletan hezkuntza emozionala lantzeko.

Autoerregulazio emozionala lantzeko materiala eskaintzeko, Getxoko Udalak, Etorkintza Fundazioarekin elkarlanean, Okaren jokoaren bertsio egokitua bidali die udalerriko ikastetxei. Jokoa arreta eta kontzentrazioa garatzeko 4 proposamenek osatzen dute: asanak (Yogaren jarrerak), amasketa kontzienteko dinamikak, hainbat erronka, eta arreta- eta kontzentrazio-arietak (Mindfulness). *"Familian edo lagunaren artean jolasteko jolasa da, adin mugarik gabe. Emozioen erregulazioa eta seme-alabena lantzeko modu dibertigarria da"*, azaldu du Carmen Díaz Gartzarte Kohesiorako zinegotziak. Jokoa taula inprima daiteke eta etxean eskuragarri dauden partxisaren edo antzekoen fitxekin (garbantzuak, txanponak) jolas daiteke. Bestalde, udalerriko ikastetxe gehienek adikzioak prebenitzeko Adikzio aurretik zinema-programarekin lan egiten jarraitzen dute, programa horren egokitzapen bat egin ondoren, on line lan egin ahal izateko. Une honetan, Bigarren Hezkuntzako ikasleak *Larga vida y prosperidad* filma lantzen ari dira, web-orrian egokitutako atal berri baten bidez (<https://www.getxo.eus/eu/prevencion/prevencion-educativo/educacion-secundaria>).

## Zurumurruen prestakuntza online

Getxo Enpresa, Laudioko Apill eta Irungo Mugan elkarteek *Lasaitasuna Zigilua* sortu dute, negozio txikiek (dendak, ostalaritza eta zerbitzuak) higienerako eta osasun segurtasunerako hartzen duten konpromisoa. Identifikazio-euskarri bat da (binilo-formatuan), eta erakuslehoetan edo negozioen kanpoko aldeetan jarriko da. Administrazio publikoek ezarritako higiene-, segurtasun- eta prebentzio-protokolo guztiak egingo dituzte konpromisoa hartu duten saltokiek, establezimenduko langileak eta bezeroak birusaren aurrean babesteko eta kutsatzeak saihesteko. Ekimenarekin bat egin duten lehen 230 saltokiek birusaren aurkako babes-neurriak betetzen dituztela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena sinatu dute dagoeneko, eta datozen egunetan *Lasaitasun* Kita saria jasoko dute, identifikazio-zigilurekin eta flyerrekin.

## Hilerriko ohiko ordutegia berreskuratu da

Maiatzaren 9ko dekretua BOEn argitaratu ondoren, non 8. artikuluan beilatokiak eta ehorzketak aipatzen diren, hilerriko ohiko ordutegia berreskuratu da. Artikulu horretan honako hau adierazten da: beilatokiak mota guztietako instalazioetan egin ahal izango dira, eta une bakoitzean gehienez ere 15 pertsona egon daitezke aire zabaleko espazioetan, edo 10 pertsona espazio itxietan (elkarrekin bizi izan zein ez); hildakoaren ehorzketarako edo errausketarako segizioan gehienez ere 15 pertsonak parte hartu ahal izango dute, senitartekoen eta hurbilekoen artean, bai eta, hala denean, kasuan kasuko aitopeneko kultu-ministroak edo pareko pertsonak ere, agur-errituak egiteko; eta nolahi ere, errespetatu egin behar dira ezarritako segurtasun- eta higiene-neurriak. Hilerriaren ordutegia da, astelehene ostiralera, 8:00etatik 18:00etara, eta larunbat eta jaiegunetan, 9:00etatik 18:00etara. Tel.: 460 22 96.

## Ereagako igogailua hasi da martxan


Udalak Ereagako igogailua jarri du martxan, ekipamendu horrek funtzionatzeari utzi zion konfinamendua ezarri zenean, bere erabilera, gehienbat, aisialdirako delako. Orain bitzta hirira itzultzen ari denez, berriro ireki da. Osasun-arrazoia direla medio, eta garraio publikoa denez, Barik txartela erabili behar da (ez txanponak, ez billeteak); derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea (leku txikia delako), eta bidaiak bakoitzeko gehienez bi pertsona erabili ahal izango dute, salbu familia-unitate berekoak badira, orduan laura zabalduko baita. Udalak norbanakoaren eta taldearen erantzukizuna eskatu du ekipamendua ondo erabiltzeko. Erabateko lehenetsuna izango dute dibertsitate funtzionala duten pertsonak, adinekoak, haurdun dauden emakumeak eta aulkitxoak dituzten gurasoak.



## Jai batzordeak, jai desberdinen aldekoak

Getxoko jai batzordeak ohar bat argitaratu dute, eta bertan, maite duten pertsona bat galdu duten pertsona guztiei, pandemiaren aurrean lehen lerroan daudenei, etxean geratu direnei eta lan egin behar izan dutenei elkartasuna adierazteaz gain, gure jaiak alde batera ez uztearen alde agertu dira, errealitate berria izanda ere. "Alderantziz, aurtengo inoiz baino gogo handiagoa dugu, baina beti egokitzen, eta bizi ditugun momentua eta baldintzak kontuan hartuta", adierazi dute. Jaiak herritarren arteko harremanak estutzen dituztenez, komunitatea sortzen laguntzen dutenez eta herriko merkataritzari eta ostalaritzari mesede egiten dietenez, jai desberdinak ospatzea proposatzen dute, "Baina beti leialak eta tinkoak programa euskalduna, parte-hartzailea eta parekidea egiteko asmoarekin, eta beti auzotarren segurtasuna lehenetsiz".

Ildo horretan, aurtengo jaiak berrasmatearen alde agertu dira, eta horretarako, Udalari beharrezko laguntza, elkarrekiko sostengua eta baterako lana eskatu dizkiote.



Natalia García Muro (dantza)

## Getxoartek herriko zortzi artistaren lana eta bizipenak aztertu ditu, konfinamendu-aldian

Kultur Etxeak, Getxoarteren Bitartekaritza eta Egoitza Programa eta *Bi hormetara* proiektuaren bitartez, abian jarri du bertoko sormen artistikoa eta publikoaren eta artisten arteko topaketa bultzatu nahi duen *Artista bat auzoan* izeneko ekimena. Maiatza osoan zehar, programa horretarako hautatutako zortzi artistek beren lana eta esperientziak gerturatuko dizkiete arte-zaleei, haiek egindako bideoez baliatuta. Guztira, konfinamenduan zehar grabatutako 8 bideo argitaratuko dira Getxoko Kultur Etxeko sare sozialetan (Getxo Kultura).

10-15 minutuko pieza horietan, Helena Goñi, Eztizen La Cruz, Pablo Zabala, Izaro Ieregi, Maitane Sarraide, Pablo Astrain, Regina Zabala eta Natalia García Muro artistek, guztiek Getxon etxebizitza dutenek, amaitu gabe edo bukatuta dauden lanak erakutsiko dituzte eta baita diziiplina anitzeko sor-

tze-prozesuak, adibidez pintura, argazkigintza, ilustrazioa, dantza, eskultura eta *performancea*, besteak beste. Gainera, esperientzia pertsonalen eta bizipenen berri ere emango dute eta baita ekitaldiak proposatu edota liburuak, musika eta beste artisten lanen proposamenak egin. Labur bilduta, horren guztiaren bitartez sortzaileen eta publikoaren arteko elkarrizketa bultzatu nahi da, berrogeialdian zehar artistek ezin izan dutelako beren lana erakusketa areto edo arte-galerietan erakutsi, baina, aldi berean, garai hau proposa da sormena pizteko.

Artisten eta publikoaren arteko harremanari jarraipena emateko, bideo guztiak eskaintzen direnean, tailer-topaketatan izena emateko aukera emango zaie zaleei. Horietan, proiektuan parte hartu duten artistek beren lana erakutsi, etorkizuneko proiektuak azaldu edota egungo arte-sormentari buruz hitz egin ahal izango dute. Artista bakoitzak erabakiko du nola eta noiz izango diren topaketa horiek, behin alarma egoera amaituta, betiere etorkizuneko balizko osasun-araudietara egokituko diren gunetan.

Bai proiektuaren bideoak bai topaketan gertatzen den guztia ere, abenduan Romo Kultur Etxean bildu eta erakutsiko da, Getxoarte 2020ko Bitartekaritza eta Egoitza Programarekin batera. Programa horretan parte hartuko duten artista guztiek *Bi Hormetara* eta Zirri Marra Arte Tailerra espazioen sortzaile diren Miren Be-goñe Bilbaok eta Ibon Garagarzak, aipatutako programaren komisarioek, hautatu dituzte. Helena Goñiren (argazkigintza) eta Natalia García Muroren (dantza) bideoak ikus daitezke dagoeneko.



### MintzalagunOnsarea abian

Euskaltzaleen Topaguneak etxean gauden bitartean mintzapraktika saioak eduki ahal izateko #mintzalagunOnsarea ekimena abian jarri du. Oraingoan hitzorduak eta saioak Internet bidez izango dira. Horrela, teknologia berriek bidelariak zein bidelagunak elkartzeko esperientzia eskainiko dute. Etxealdia amaitzen denean, herriko taldearekin aurrez aurre elkartzeko aukera izango da. Informazioa eta izenematea: <https://mintzalaguna.topagunea.eus/mintzalagunon-sarea/>

## 2020-2021 ikasturterako izenemateak Andrés Isasi Musika Eskolan

Maiatzaren 15etik 31ra bitartean zabalik egongo da Andrés Isasi Musika Eskolan 2020-2021 ikasturterako izena emateko epea (behin betiko matrikulazioa eskolen ordutegiak baieztatzen direnean egingo da). Izena aurrez aurre eman ahal izango da (izena emateko inprimakia Eskolako bulegoetan entregatuz, egoerak ahalbidetzen badu) edo online ([www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) udal webgunearen bidez).



Andrés Isasi Musika Eskolan izena emateko inprimaki eta informazio guztia:

\* **Areeta**, Las Mercedes 6. Asteleheneretik ostegunera, 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara; ostiraletan 19:00ak arte. Telefonoa: 94 464 60 11.

\* **Algorta**, Basagoiti Etorb. 77. Ostegunetan 09:30etik 13:30era eta asteleheneretik ostiralera 15:30etik 20:00etara. Telefonoa: 94 464 60 22

\* **e-maila**: [aisasi@getxo.eus](mailto:aisasi@getxo.eus)

\* **www.getxo.eus**

### Bizi proiektua

Musika Eskolak bat egin du euskaren eta gaztelaniaren arteko elkarbizitzarako *Bizi* proiektuarekin. 2020-2021 ikasturtean Musika eta mugimenduko eta Musika-hizkuntzako 2. mailarainoko (4. modulua) ikasle guztiei zabalduko zaie. Horrela, ikasle horien irakasleek bi hizkuntzak konbinatuz emango dituzte eskolak. Bi hizkuntzetan ematen diren espezialitateak [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) webgunean kontsulta daitezke.

## Kultur elkarteentzako urteko diru-laguntzari buruzko oharra

Nahiz eta 2020/04/30ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu den Getxoko kultura-elkarteei 2020an eman beharreko urteko diru-laguntza emateko deialdia, deialdi horretarako eskabideak aurkezteko epea etenda dago martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu duena, hain zuzen ere. Aipatutako errege-dekretuak edo, hala badagokio, haren luzapenek indarra galtzen dutenean hasiko dira berriro epeak zenbatzen, eta hori behar bezala iragarriko da [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) udal webgunean.

### Erakunde onuradunaren betebeharrak

Oinarrietan jasota dagoen bezala, gogorarazten da diru-laguntza jaso asmo duen erakundeak aurkeztutako proiektua gauzatu beharko due-

la, eta, diru-laguntza emateko ebazpena eman ondoren, haren edukia aldatzeko soilik eskatu ahal izango dela, jarduera egiteko epea amaitu baino lehen. Epe hori baimendu ahal izango da, betiere hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez badie. Bestalde, erakunde onuradunak jarduerak eragindako gastuak eta diru-sarrerak justifikatu beharko ditu, aurkeztutako proiektuaren eta oinarrietan xedatutakoaren arabera. Diru-laguntza beste helburu baterako erabiltzen bada edo justifikaziorik ez badago, diru-laguntza itzuli egin beharko da.

Horregatik guztiagatik, aurkeztutako aurrekontuetan eta proiektuetan COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko gaur egun hartzen ari diren baldintzak, baldintzatzaileak eta neurriak kontuan hartzea gomendatzen da.



# GetxoBizi bizikleta mailegatzeko zerbitzu publikoa berriro ireki da

GetxoBizi bizikletak mailegatzeko eta aparkatzeko zerbitzu publikoak aste honetan berrekin dio bere jarduerari. Hala ere, zerbitzua zenbait berrikuntzarekin hasi da, alarma-egorran ezarritako eta gomendatutako osasun-neurrietara egokitzeko baita. Horrela, zerbitzua astelehenetik larunbatera (larunbata barne) dabil, 07:00etatik 20:00etara. Abonatuak bakarrik erabili ahal dute (oraingoz ez da noizbehinkako erabiltzaileen ztat ireki), eta bizikletak lanpostuetara joateko eta udalerrri barruan erosketak egiteko bakarrik erabili ahal izango dira, alarma-egoera arautzen duen indarreko dekretuaren arabera. Gomendatzen da eskularruak erabiltzea eta bizikleta utzi ondoren bota; eskuak ondo garbitu urarekin eta xaboiarekin edo gel hidroalkoholikoarekin ahal bezain laster, ibilbide bakoitzaren aurretik eta ondoren; maska-



ra jantzi eta beste txirrindulariekiko 2 metroko distantzia soziala mantentzea. Gainera, erabiltzaileei eskatzen zaie Covid-19ren gaixotasuna diagnostikatu zaienetik 14 egun baino gutxiago igaro badira, edo oraindik sintomaren bat badute edo diagnostikatutako norbaitekin

kontakturik izan badute, zerbitzua ez erabiltzeko. Zerbitzuaren kudeaketaren ardura duen erakundeak, bestalde, egunean bi aldiz garbitu eta desinfektatutako ditu bizikletak eta horien aparkalekue-tako ukipen-gainazalak, desinfektatzeko eskuzko elementuekin.

## Arrigunagako hondartza itxi da udarako egokitzeko

Aste honetan bertan hasi dira Arrigunagako hondartza udako denboraldirako egokitzeko lanak. Harea mugitzeko makina astunak erabiltzen ari dira; beraz, hareatza itxi egin da, segurtasun-neurriak direla medio, lanek irauten duten bitartean. Uste da lanak hamar eguneko iraupena izango dutela, hilaren 11tik hasita. Maiatzaren 16 eta 17ko asteburuan, larunbatean eta igandean, gelditu egingo dira lan horiek eta, beraz, herritarrek hondartza erabili ahal izango dute indarrean dagoen deseskaladako 1. faseari dagozkion neurriek ezarritako baldintzetan: paseatzeko eta kirola (igeriketa) egiteko jarduerak baimentzen dira, bai hondartzan, bai itsasoan bertan. Ezin da aisialdiko bainurik hartu, ezta eguzkia modu estatikoan hartu ere. Halaber, udalerriko gainerako hondartzak egokitu eta txukundu dira dagoeneko.

## Kaio hankahoriaren jaiotza-tasa kontrolatzeko proiektua

Ingurumen Arloak kaio hankahorien jaiotza-tasa kontrolatzeko proiektu bat jarri du abian, udalerrri barruan, hirigunean, habiak egiten dituzten aleen kopurua ezagutu eta murrizteko, eta dagoeneko bertan kokatu edo bizi diren bikoteen kopurua handituko luke ten txita berrien jaiotzea saihesteko. Hankahoria, Getxon inbentariatutako 20 kaio espezie ezberdinen artean ugariena da. Modu sedentarioan jokatzen du, batez ere kostaldearekin lotuta, baina udalerrri barruko zelaietara ere joaten da elikatzeke. Unean-unean, Galea aldeko itsaslabarretan egiten du habia.

Azken bi hamarkadetan, oro har, kaio

hankahoriaren populazioak nabarmen egin du gora kostaldeko hiriguneetan, besteak beste, inguru horietan errazago lortzen dituztelako elikagaiak eta egiten dituzten habiak babestuago daudelako. Gainera, gero eta beldur gutxiago diote gizakiari, eta, horren ondorioz, zenbait arazo sortu ditu, hala nola zarata, garrasiak egusentian, gorozkiak, euri-uren erretanak tratatzea, teiltuak hondatzea, teiltueta igotzen diren pertsonekiko oldarraldiak... Getxon, batez ere, Romo, Areeta eta Santa Ana auzoetan hasi dira ikusten, teiltu batzuetan habiak ere egiten dituela. Horregatik, uztaile arte habiak bilatu eta ezabatuko dira, bai eta izan ditzaketen arrautzak ere. Barruan txitak badaude, Bizkaiko Fauna Basatia Berreskuratzeko Zentrorra eramango dira. Hori dela eta, teiltuan habiaren bat ikusiz edo antzeman ez gero, 94 466 01 91 telefono zenbakira deitu edo [ingurugiroa@getxo.eus](mailto:ingurugiroa@getxo.eus) postara idatziz. Halaber, habiak kenduko dituen enpresako langileei teilturako sarbidea erraztea eskatzen da (egiaztagiria eramango dute aldean).



Julen Zuberogoitia



### Pixie, Marian gidatzen duten begiak

Marian Casellesek ikusmen-desgaitasuna du. Bere ikusmen arazoak 12 urterekin hasi ziren, baina ia itsua da duela 20 urtetik, erretinosi pigmentarioaren ondorioz. Pixie ONCE-ko bere egungo gidari txakurra da (bosgarrena orain arte), labrador ilehori ederra, "oso maitagarria, lasaia eta lagun zoragarria", duela bi urtetik aurrera bere eguneroko bizitzan autonomoa izaten jarraitzeko aukera ematen diona. Egun hauetan etxean ematen dute denbora gehiena, familiako gainerako kideekin batera. Egunean hiru aldiz ateratzen dira, 10 bat minutuz eta etxe inguruan, Pixiek bere beharrak egin ditzan; Malakate parkearen inguruko saltokietan mandaturen bat egitera, eta ezarritako orduetan paseatzera. Marianek, Fadura Institutuko langile ohia eta orain erretiratu, zera gogorarazi digu: "pertsonek itsuek eta gure txakurrek ez daukagu agintariek gomendatutako segurtasun-distantzia ezagutzeko gaitasunik -2 metro-, kutsatzeak saihesteko. Horregatik, herritarrei eskatzen diegu, eguneroko egoeretan, ahotsaren bidez, eta ez ukimenaren bidez, adieraz diezaguten zein den eremu zuzena indarrean dagoen araudia betetzeko".

## KIROLAK

# Getxoko Arenas Clubak Errege Koparen mendeurrena ospatuko du gertaera historiko hori kontatzen duen bideoarekin

30 minutuko dokumental batek eta bere mendeurrena ospatzeko liburu batek, euskal futboleko talde historiko batek 1919an Errege Kopa lortu zueneko istorioa kontatuko dute, hain zuzen ere *Historikoa* bezala ezagutzen den taldea. Klubaren balentria horrek oroimenean dirau. Bere egungo presidentek, Franqui Egusquiaguirrek, pasadizo bat kontatzen du dokumentalean, Kopako txapelketa irabazteak udalerrria bere mugetatik kanpo ikusteak izan zuen garrantziari buruzkoa. Eta egia da. Inork ez zuen espero 1919ko maiatzaren 18 hartan, 2.000 biztanle pasatxoko herri bateko klub bat Bartzelonari irabazteko bezain talde indartsua izateko gai izango zenik, harengana iristeko Madrilekin, Athleticekin eta uanean uneko punta-puntako gainerako taldeekin nor baino nor aritu eta gero, batez ere bere jokalariek profesionalak ez zirenean, baizik eta arotzak edo igeltseroak, denbora librean entrenatzen zutenak eta igandean



Lamiakoko, Jolasetako, Romo edo Ibaiondoko zelaietan jokatzen zutenak, zulo eta putzuz beteak.

100 urte geroago, Arenas zale izateak emoziorik handienak pizten jarraitzen du bere jarraitzaileen artean, eta, 25 urtean behin, Klubak egun handi hori gogoratzen du, Athleticekin partida bat jokatuz, egin zuten lana eta esfortzua gogoratzeko, talde honek, gaur, ligan borroka ematen jarraitzea ahalbidetzen dutenak (lehiaketa horretako 2. B mailan mantentzen da gaur egun).

*El corazón sensible del fútbol* dokumentalak, Amaia Agirre alkatea, Franqui Egusquiaguirre klubeko presidentea, Aitor Ramos taldeko egungo kapitaina, Juan Mari Velasco klubeko 1. bazkidea eta Ainara Unibaso bazkide eta zuzendaria elkarrizketatzen ditu; eta bere historiako irudi berriak biltzen ditu. Dokumentala sare sozialetan eta Klubaren Youtubeko kanalean aurkeztuko da, hilaren 18an, 12:00etan.